



SANANTOLINAK

2026

ABUZTUAREN 29tik IRAILAREN 8ra

[LEKEITIO]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

HITZA



AUKERAKO KOTXEAK

www.autosberritxu.com

Erribera auzoa, 13 behea
94-613 99 90 · BERRIATUA

Ondo pasa san antolinak!



SANANTOLINAK

ABUZTUAREN 29tik IRAILAREN 8ra
2026 [LEKEITIO]

Jaietan ADI!
Urtero modura,
sanantolinen argazki
galeria eta bideoak
egongo dira HITZAren
webgunean,
JAIK atalean.

Argitaratzailea:

Lea-Artibaialdeko Hedabideak E.M.

Helbidea:

Markina-Xemein


Arretxinaga kalea 1

tel.: 94-684 44 36 • lh@hitza.eus

www.busturialdea.hitza.eus

www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus

Zerbitzu gida:



lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus/zerbitzu-gida



HITZAleamutriku

hitzaleamutriku

Azaleko argazkia:

HITZA

Testuak:

HITZA • Lore Bengoetxea Ibazeta.

Lekittoko Mugimendu Feminista.

Lekeitioko Udala.

Diseinua eta maketazioa:

11barri.eus • Eli Azpiazua Armaolea.

Publizitatea:

HITZA • Naia Bilbao Santamaria.

Argazkiak:

Lore Bengoetxea Ibazeta,

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko

HITZA,

Pasajerua 26 proiektua,

Lekeitioko Udala,

Parkeko Gunia eta

Lekittoko Mugimendu Feminista.



argitalpena eta
lana egiten



Argitalpen honek
Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du.





Hortz Klinika
Ana Arrillaga El Koro

P. Abaroa Etorbidea 2 - behea
48280 Lekeitio - Bizkaia
Tel. 94-685 00 44

info@anaarrillagaelkoro.eus
www.anaarrillagaelkoro.eus



AUTOKONPONKETAK

Tel.: 94 684 44 92
andikomotor@gmail.com

Okamika industrialdea
1. pabilioa/2. modulua/behea
48289 GIZABURUAGA



tel./faxes: 94 684 31 50
mobila: 696 215 334
antarrisamoroto@gmail.com

AMOROTO

ANTZARRAK

etxera

arrain freskua!

txatxo kaia z/b, LEKEITIO.

LEKEITIO
genre
nortasunetik

abuztuak 29, larunbata

•09:00.

I. XABIER ERKIAGA "Erki"
TXAPELKETA (jubenilak):
Lekeittio FT – Athletic Club – Eibar –
Alaves – Bansander – Racing de Santander.

•20:00.

TXISTULARIEN KALEJIRA ETA
KONTZERTUA. Udaletxetik hasita
kalejira eta kontzertua plazan.
Itxaropena txistulari taldea.

•23:00.

KONTZERTUA plazan.
Steady Rockets taldea.

•01:00.

KONTZERTUA plazan.
Zauria herriko taldea.

abuztuak 31, astelehena

•21:00.

Eraso matxisten kontrako
MANIFESTAZIOA.
Tortola kaletik hasita.
Lekitxoko Mugimendu Feministak
antolatuta.



irailak 1, asteartea

San Antolin bezpera Bajada eguna

•12:00.

BURUHANDIAK ETA
ERRALDOIAK
kalerik kale,

•19:15.

39. KUADRILEN BAJADA,
Txirrist txarangak eta
Aittitta Makurra txarangak
animatuta.
Hasiera Sabino Arana 31tik
(Telefonikako eraikinaren aurretik).
Kudrilak Txirrist txarangaren atzean
kokatu beharko dira. Herriko taldeen
musika ondo entzun ahal izateko,
bozgorailurik ez eramatea eskatzen da.

•Bajadaren ostean.

TXOSNEN IREKIERA.
Ant.: Txosna batzordea

•20:00.

ANGELUSA,
hasiera emateko
San Antolinei;
KANPAI JOTEA,
TXUPINAZOA eta
ANTEROREN BAJADA.
Lekeitioko Zinemazaleak elkarteak
botako du txupinazoa.

Albina Stardust & Divina Comedia-ren
MUSIKA EMANALDIA plazan.
Bajadaren amaiera animatu
etagaua girotzeko.

•22:30.

SUZKO ZEZENA plazan.

•23:00-02:00.

DJ SAIOA eskolapean.
DJ Mikelxti.

•23:30.

ERROMERIA plazan.
Zirkinik Bez.



*Jaietan bakoitzak bere
«tangia» erabil dezala!*

Herria txukun mantentzeko
ahalegina denon artean
egin behar dugu.



BOLANDERAK JAURTIKO DIRA
/ EKINTZA ZARATATSUA.
Ikono hau zaratekin hipersensibilitatea
dutenak ere jaietaz gozatzeko gehitu da.

•22:00-06:00.
ARRETA
FEMINISTARAKO
GUNEA.
ERASO SEXISTEN
ARRETA GUNEA
Turismo bulegoan.



94-684 00 60

LEKEITIO

Buenaventura Zapirain kalea, 5 behe

OPARIAK, ESKULANAK
ETA KONTSERBAK

BIRA

LEKEITIO



688 74 92 27



@biralekeitio

Gamarra kalea, 2 - LEKEITIO

1974tik
DANONTZAT
LEKEITIO

Opariak • Lurrindegia • Moda osagarriak

Gamarra enparantza, 4

94-684 04 40



DENDARI

Abaroa
Etorbidea, 2/G
94 684 09 06
LEKEITIO



NEURRI
bereziak

HATOR
FRANTSESA



Ondo
pasa
jaiak!

INOXKEA
HIRI ALTZARIAK

inoxkea@inoxkea.com

www.inoxkea.com

INOXIDABLEAK eta burdin lanak



Tel. 94 624 35 40 / Mug. 626 77 01 97

Okamika indust. 1. A pab. 1. Mod. / 48289 GIZABURUAGA

IPAR ARRINDA LETONA

🕒 Euskal selekzioiko ardi moztaillea.

Zirrikitu bat zabaldu dugu besteentzat

Ipar Arrinda ardi moztailleak Euskal Herriaren izena lau haizetara hedatu du Zeelanda Berriko Mundu Txapelketan parte hartuaz.



Zer izan da zuretzat euskal selekzioagaz Zeelanda Berrian izatea?

Ohorea eta lorpen handia; amesten genuen gauza bat. Aitzindariak gara. Lehenak izan gara Euskal Herri modura agertzen. Eta miresten dugun ardi moztailleen alboan lehiatu gara, gainera! Gure herria guk baino urrunago inork ez du eramán. Altuago, Martin Zabaletak Everestera. Baina urrunago...

Zer gelditzen zaizue egiteko?

Mundu mailan onartuak garen arren, hemen ez. Izan ere, buruagaz baino, bihotzagaz jokatu heldu gara hona, kolore batzuk ordezkatzeko gogo biziz.

Esan beharra dago oso ondo konpontzen garela beste herrialdeekin, beti gaudela elkarri laguntzeko prest. Eta harremanei esker atek zabaldu zaizkigu. Orain, egituratu beharra daukagu. Horretarako, laguntza beharko genuke, ze guretzat lan nekeza da. Gu ardi moztailleak gara!

Euskal Ardi Moztailleen Elkartearen bidez, euskal ardi mozketaren tradizioa eta ofizioa ezagutarazten laguntzen duzue, bai Euskal Herrian, bai nazioartean.

Bai, eta ez da zeregin makala, besteak beste, ardi mozte sasoigaz bat egin ahal duelako bete-betean!

Zertan eragin duzue eta zertan eragin nahiko zenuket?

Alde batetik, iruditzen zaigu zirrikitu bat zabaldu dugula besteentzat. Eta beste alde batetik, gazteak erakarri nahiko genituzke, ardi mozketaren mundua ezagutzera eman, ze oso polita da.

Sanantolinetako txupina jaurtitzeko hautagaia izan zara. Zer daukazu esateko horren inguruan?

Poztasun handia ematen du herrian hainbeste lan egin izan duen jendearen artean txupina botatzeko hautagaia izatea. Hautagai hutsa izatea ohorea da. ●



BELAZAHAR

- Zure maskotarentzat behar duzun guztia
- Albaitari kontsulta

94 684 06 71 • belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA • LEKEITIO

BETIKO
SUKALDARITZA
GASTRODENDA

Egaña

ETXERA ERAMATEKO JANARIA

% 100 NATURALA

Tel.: 747 411132
gastrodendaegana@gmail.com
Santa Katalina, 2 | Arranegi, 7
48280 LEKEITIO

www.egañarestaurante.com

Egaña

JATETXEA

Tel.: 94 684 0103

Antiguako ama, 2 - 48280 LEKEITIO

EPERMENDI

J A T E T X E A



94-684 17 62
OLETAN





LEKEITIO
genere
nortasunetik



irailak 2, asteazkena

*San Antolin Eguna
Alkondara zuria eguna
Amnistia eguna*

• 09:00.

AKORDEOI-JOLEEN KALEJIRA.

• 11:00.

25. TIRAGOMA TXAPELKETA

Limoneruan.

Parte hartzeko izena ematea: 10:30ean.

Aittitta Txiki elkartearen eskutik.

• 11:15.

AGINTARIEN

PROZESIOA.

Lekeitioko alkate eta zinegotzi jaun-
andreak udaletxetik eleizaraino joango dira,

Itxaropena txistularien

laguntzarekin.

• 11:30.

MEZA NAGUSIA.

• 12:00.

BIODANTZA. Parkean.

Adin guztientzako ekintza da eta

ez da eman behar izenik.

Ant.: Parkeko Gunia.

• 17:00.

ERAIKUNTZA

TAILERRA eta

HANKAPALO TAILERRA.

Adin guztientzako ekintzak dira
eta ez da eman behar izenik.

Ant.: P.G.

• 19:00.

UME GAIZTUEN FESTA

Egitarau propioa: bokata jan,

suak ikusi, jolasak egin, ikastolan lo...

Adin mugatua: 2014 eta 2020 urteen

artean jaiotakoak (biak barne).

Izena eman behar da online bertan

egunean 18:30ean: 10 euroko kostua dauka

(bokata eta gosaria ordaintzeko).

Ant.: P.G.

• 18:00.

XVI. TXAPEL JAURTIKETA

Uribarren kalean.

Parte hartzeko izena ematea:

17:30etatik 18:00etara.

Aittitta Txiki elkartearen eskutik.

• 19:30.

OMENALDIA XENKIETA

MURGI GOGOAN.

55. urteurrena. Goiko kalean.



• 20:00.

BERTSOLARIAK

Arranegin.

BALKOTIK BALKOIRA:

Onintza Enbeita,

Maddi Ane Txoperena

eta **Xabat Gallettebeitia.**

• 21:30.

KONTZERTUA plazan.

Puro Relajo.

• 23:00.

SU ARTIFIZIALAK

Valecea

pirotekniaren eskutik.

• Ondoren.

SUZKO

ZEZENA.

• 23:45.

KONTZERTUA plazan.

Gozategi taldea.



Lea-Artibaiko AXA agentziak

MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Iñaki Deuna 32,
ONDARROA

Tel./Faxa: 94 603 64 84

Paskual Abaroa 11,
LEKEITIO

Tel.: 94 624 33 96

Faxa: 94 684 04 55

Karmengo kalea 10,
MARKINA-XEMEIN

Tel.: 94 616 89 12

Faxa: 94 616 89 12

aseguruak / berrasmatzen



Zulueta auzoa, z/g
94 684 40 02
AMOROTO
www.erabil.com



IARERAI

94-624 33 38

Maria Diaz de Haro, 4
48280 LEKEITIO

LEGIBURU

94-624 33 50

Santa Katalina, 2
48280 LEKEITIO

CONFORTAUTO.COM



ESKUONAK

AUTOKONPONKETA

Liderrak segurtasunean, prestazioetan eta prezioan!

- Edozein arazo mekanikoen konponketa
- Txapa eta pintura
- Hankook pneumatikoak
- Zure autoa nahi duzun tokian hartu eta utziko dizugu



Gardotza Industrialdea, 9 **BERRIATUA** 94-683 33 59 - 679 63 13 86 eskuonak@gmail.com

SAREAGAZ

Hirugarren urtez, Gure zirkua Lekeition egon da, eta hango karpa jartzen eta kentzen laguntzen, herritar talde bat.

"Egia da Gure zirkuak sortzen duela horrelako magia berezi bat denok ukitzen gaituena. Beste herriren batean auzolaneari karpa muntatzen zutela ikusita, geuk ere laguntza eskaintzea pentsatu genuen", azaldu du Igotz Espejak.

Urtetik urtera gehitzen joan da auzolanera batzen direnen kopurua. Aurten 40 elkartu dira, sekulakogehien. Hango batzuekin ("lagin txiki bat") egin du hitzordua HITZAK dinamika horren inguruan berba egiteko. "Ho-

rrelako ikuskizunek herria aktibo eta bizirik mantentzen laguntzen dute", esan du Bentura Kortazarrek. Hori bai: ez doaz babestera edozein gauza, Espejak gogoan daukanez. "Herriari aisialdi eskaintza bat egitera gatoz, euskaraz. Urte osoan Lekeition arnasgune izendatuta dago, eta horrela izaten jarraitzeko, alde batetik, geuk egin behar dugu euskaraz, eta bestetik, herrian ematen den eskaintza euskaraz izan behar da".

Auzolanaren beharraz

Euren egiteko moduagaz bat dator Amandarriko Haritz Garatek adierazi duenez, eta horregatik batzen dira, orain Gure zirkura, eta hurrengoan



beste

ekimen batzuetara.

"Bizitzaren modura da hau: batzuetan eman egin behar duzu besteetan hartzeko", dio. Hortik egin du tira Jone Guenagak. "Ekintzak aurrera ateratzeko, denok ipini behar dugu geure aldetik zer edo zer". Eta hitzok entzunda, herriko hainbat ekimenetan jarri du begirada Bentura Kortazarrek. "Hori herrian antolatzen diren gauza askotara estrapolatu daiteke", adierazi du. "Auzolana dago horietako askoren atzean, sanantolinetan ere bai neurri handi batean, eta denok gara horren parte". Espejaren berbak dira.

"Nik neuk gura-soengandik jaso dut auzolanaren eredua, eta hari jarraitzen diot", arrazoitu du Guenagak. Eta zer ikusi, hura ikasi, belaunaldi berriak batzen doaz Gure zirkura. Jokin Txopitea da horren adibide. Berak ere bat egin du auzolanaren beharra nabarmentzean, eta batean eta bestean egiten diren deialdietara batzera animatu. ●



Karpa jartzen eta kentzen lagundu duten batzuk. "Lagin bat".



Pintxoak, bokatak, razioak,
hanburgesak... eta gehiago.

94-684 19 23
Azpiri kalea • LEKEITIO



ondo pasa jaixak!



TABERNA

Igualdegi 2-behea
LEKITXO

GOITIKO



J A T E T X E A
K A F E T E G I A



Lekeitioren bihotzean

- eguneko menua
- plater konbinatuak...
- terraza

94 684 31 03

Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO

GOL
SAOIRSE
tavern



94 684 06 11

Otxoa Urkiza z/b
LEKEITIO



irailak 3, osteguna

Kamiseta eguna (kuadrilakoa, erreibindikatiboa...)

•10:00etatik aurrera.

30.PAELLA
TXAPELKETA plazan.
Ant.: Jai batzordea.

•11:00etatik 14:00etara.

UME ETA
EZ HAIN UMEENTZAKO
TAILERRAK plazan.
Eskulanak, muralak, esaera zaharren jokoa,
aurpegiak margoztea...
EtxeTIC-Lekeitio zerbitzuaren eskutik.

•11:30.

KUADRILEN
ARTEKO
PROBAK
Abadeen moilan.
Ant.: Garraitx K.T.



•13:30.

PAELLEN AURKEZPENA
eta SARI BANAKETA
plazan.

•15:00.

HERRI BAZKARIA.
Paella eguna.
Eguraldi onarekin arbolapean.

•17:00.

ALTXORRAREN BILA
Adin guztientzako ekintza da eta
ez da eman behar izenik.
Ant.: Parkeko Gunia.

•19:00.

ATUN ERREA.
Ant.: P.G.

•20:00.

FAROLAPEKUA,
parkean.
Gu ta gitarrak
musika taldea.
Ant.: P.G.

•19:30.

ELEKTROTARANGA
Elektrotxufila taldea kalerik kale,
udaletxe aurretik hasita.

•22:00.

KONTZERTUA
plazan.
Marte Lasarte taldea.

•23:30.

KONTZERTUA
plazan.
Zea Mays taldea.



ZEAMAYS

•22:00-06:00.
ARRETA
FEMINISTARAKO
GUNEA.
ERASO SEXISTEN
ARRETA GUNEA
Turismo bulegoan.



IBAI-GANE

DENDA ETA ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

LARUNBATAK, IGANDEAK
ETA JAIEGUNAK

DENDAKO ORDUTEGIA
12:00-15:30

9 Oleta Auzoa, 48289 AMOROTO (Bizkaia)

ESKAERAK

629 629 257 | 946 841 359

Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan
produktu ezberdinak ditugu Oletako gure dendan
(izakinak agortu arte); edota, Lekeitiora
hurbiltzeko eska dezakezu bi ordu hauetan:
14:00etan eta 15:00etan.

info@ibai-gane.com
www.ibai-gane.com

Ikusi

Eraikuntza materialak



ERAKUSKETA • Abaroa etorbidea, 19

94 684 14 99 • LEKEITIO

BILTEGIA • Abaroa etorbidea, 34

94 624 38 71 • LEKEITIO

BILTEGIA • Okamika 1. pab • GIZABURUAGA

H. I. Aretxaga

Finka administratzailea
Higiezin zerbitzuak
Alokairuak eta salerosketak

Iñigo Aretxaga

Bizkaiko finka
administratzailea, zk.: 808

Arranegi 11-Lekeitio

Tel./Faxa: 94-465 35 75

Sakelakoa: 656 58 03 14

iaretxaga@yahoo.es



Javier Zubizarain Garate



ARKITEKTURA ESTUDIOA
Atea 30, behe 2, Lekeitio

Proiektuak
Erreformak
Jarduera lizentziak
Irigarritasun azterketak
E.I.T. txostenak
Ziurtagiri Energetikoak
Gremioen kooordinazioa



616 143 092 jzg.arkitektura@gmail.com

JOSE SALIO CASQUERO

◎ Tximista taldea

Probagaz herriari zer edo zer eskaini nahi izaten diogu

Tximistak 30 urte daramatza altuera jauziko txapelketa antolatzen. Beste behin, maila altuko ikuslari zuna eskainiko du.

Zer bilatzen duzue proba horregaz?

Tximistak zer edo zer eskaintzea herriari; kirol ikuslari bat. Gainera, beti parte hartzen du taldeko bateren batek ere. Tximistan dagoen maila erakusteko era bat da. Oso giro polita egoten da.

Bertakoekin batera, hainbat izen entzutetsu egon izan dira...

Euskaldunen artean, hauek dira aipagarri: Javi Villalobos hamabi aldiz egon da; Ugaitz Perez, zortzi bider, eta Ruth Beitia, zazpi. Horiez gain, estatu eta mundu mailako beste hainbat txapeldunek parte hartu izan dute. Atera kontuak: 2004an Javier Sotomayor ere eduki genuen, XX.

mendearen bukaerako atletismoko izar handienetakoa eta munduko errekoraren jabe.

Zeintzuk izan dira markarik onenak?

Hauek egin dituzte jauziari handienak: mutiletan, Javier Bermejok 2,19ko jauzia egin zuen; eta Ruth Beitia, 1,90. Biak 2008an.

Ze momentutan dago lehiaketa?

Lehiaketa sistema aldatu egin da, eta gaur egun sanantolinek atleten atsedenez bat egiten dute. Horregatik, azken urtee-


tan batez ere hemengo jendeagaz ibili gara, eta berriro EAETik kanpoko txapeldunen parte-hartzea berreskuratu nahi dugu.

37 urte daramatzazue. Zein izan da gakoa Tximista sendo mantentzeko?

Boluntarioen eta gurasoen parte hartzea. Zuzendari-tzan gurasoek parte hartzen dute, eta horrek eragin handia dauka.

Zenbat lagun pasa dira Tximistatik?

Hori ez dago jakiterik. Milaka! ●





**IRIGOIEN
OPTIKA**

OPTIKO-OPTOMETRISTA | AUDIOPROTESISTA
ENTZUMEN ZENTROA



Zumatzeta, 1 - LEKEITIO 48280
638 37 63 33
T./Faxa: 94 684 31 72
irigoienoptika@telefonica.net

Itsasargia BAR

Festa-afariak enkarguz,
batido naturelak, pintxoak, razioak...

zaloz momentu ahaztezinak igarotzerak!



628 57 03 07

Santa Katalina
LEKEITIO



IZAYFER
ASESORIA-AHOLKULARITZA

ASESORIA

IZAYFER

AHOLKULARITZA



Fiskala | Laborala
Kontularitza | Erretiroak
Errenta | Aseguroak

Agirre Solarte 11 - 48280 LEKEITIO
Tel. 94-684 25 85 Faxa: 94-684 31 66

Kiz-Kiz
ileapaindegia

94 684 20 33

Paskual Abaroa etor.
26 (bis) behea
48280 Lekeitio



IRUNE
terapia & estetika zentroa



**AURPEGI
TRATAMENDUAK**

Azal-diagnostikoa, peeling-a,
garbiketa, aknearen mantenua...



**GORPUTZEKO
TRATAMENDUAK**

Gorputz daignostikoa, tratamendu
eraginkorrak, masaje ezberdinak...



**TERAPIA
HOLISTIKOAK**

Energia kanalizatzea,
"Zu zu mairatzeko hamar arrazoi",
"Saharako brisa", "Emodetox"...

Lor ezazu azal argitsuagoa eta bizi-betea!
FHOS
BIOLUMINESCENTE
Galdetu lasa!

Sabino Arana etorbidea, 8 behea 48280 LEKEITIO
94-684 29 83



irailak 4, ostirala *Antzar bezpera*

•10:00-13:00.

ANTZAR EGUNEKO JAIAN
PARTEHARTZEKO
IZENA EMATEA
Kultur Etxeko Azkue Aretoan.

•16:30.

ESTREPU TAILERRA parkean.
Adin guztientzako ekintza da eta
ez da eman behar izenik.
Ant.: Parkeko gunia.

•18:00.

GAZTELU TXAPELKETA parkean.
Adin guztientzako ekintza da eta
izena eman behar da 17:30ean..
Ant.: P.G.

•18:00. SAN ANTOLIN

30. ALTUERA JAUZIKO
TXAPELKETA
San Pedro kofradia aurrean.
Tximista taldeak antolatuta.

•18:00.

FUTBOLA: *Nagusien*
San Antolin futbol txapelketa.
Kepa Nabera Kaltzakorta
futbol zelaian:
Lekeitio F.T. - Artibai.

•19:00.

TXOKOLATADA parkean.
Ant.: P.G.

•19:00.

MANIFESTAZIOA eskolapetik hasita.
Arantza eta Liher etxera lelopean
Ant.: Galarrena taberna.

•19:30.

VIII. CaixaBank
Esku Pilota Masters
ESKU PELOTA
TORNEOA
Santi Brouard frontoian.

•20:00.

FAROLAPEKUA parkean.
KONTZERTUA.
Olatz eta Lur.
Ant.: P.G.

•20:30.

IV. SAN ANTOLINETAKO
CORREFOC FESTA
San Pedro kofradiatik plazara.
Lekittoko Deabruak (Lekeitio),
Diablos de Garcia (Garcia-Tarragona), eta
Diablos de Morella (Morella-Castellon)
taldeen eskutik.
Ant.: Lekittoko Deabruak.

•21:30.

KONTZERTUA plazan.
Saji taldea.

•23:00.

KONTZERTUA plazan.
Neomak taldea.



•22:00-06:00.
ARRETA
FEMINISTARAKO
GUNEA.
ERASO SEXISTEN
ARRETA GUNEA
Turismo bulegoan.



■ Ateak orokorrean
Leihoak (PVC,
aluminioa eta egurra)
Aroztegiko lanak

Buenaventura Zapirain, 6 - behea. LEKEITIO
Tel. 94 684 28 55 / Faxe. 94 684 15 27 / kareagaateak@euskalnet.net



www.uribarren.es



Uribarren Abaroa
fundazioa ▶ Egoitza
Eguneko Zentroa



94-684 00 55 • 618 731 525

Iñigo de Artieta etorbidea, 2 - 48280 LEKEITIO



LEKITXOKO
MUGIMENTU FEMINISTASANANTOLINAK
GEURIAK DIRA!

Badatoz Sanantolink eta, zelan ez, pozik gagoz. Urteko martxiari egiten dotsagun eten alai eta kolektiboa da. Adin, jatorri, sexualitate, genero identitate, arraza, hizkuntza eta bizi-baldintza desberdinetako lekitxarrok bat egiten dogu. Ganera, geure buruari dantzatzeko, kantateko eta mozorrotzeko tarte eskaintzen dotsagu aste honetan. Leikitxo eta Sanantolink euskaldun, ez baztertzaille eta askeak desio doguz Lekitxoko Feministok, be bai. Orain artekuak, barriz, erakutsi dau jaiak ondo pasa eta barre egitiagaz lotzen doguzen arren, sarri, negar, ikara, hasarre eta umiliaziño be bihurtzen jakuzela.

Jaietan dana parkatu, dana onartu eta dana libre danen ideia zabal dabil. Galdut beharreko lotsak galtzeko aukera on dala-kuan gaoz geu be, baina badagoz lotsagarriak dirazen, eta lotsarik sortzen ez daben beste portaera batzuk be bai: eraso matxistak, LGTBQfoboak eta arrazistak, esate baterako.

Gizonen munduko futbol txapelketari lotutako estadistiketan atzera be ikusi dan moduan, lehia edo ospakizun zehatz batzuk indarkeria matxista biderkatzeko testuinguru bihurtzen dira. Sanantolink holako gertaera bat izatia ala ez, danon esku dago. Izan be, jaiak, indarkeria matxista bizitzen dagozen askorentzako, ez dira plazarik ederrera: urte osuan ez koinzididuteko ahalegina egin dogun gizon hori pare topatia erreza-gua dalako. Geu jazartzen egon dan hori herri bazkariko oilarra edo antzar-harrapatzaile haus-potua zelan bihurtuten dogun ikustia tokatan jakulako. Matxismua ezkutatia errezagot egiten dalako alkohola eta beste drogen atzian. Eta, betiko lez, geugana datorrelako bueltan mutil eta gi-

zonen frustraziñoia, hasarria eta ezina biolentzi bihurtuta.

Dana libre dan horretan, neska gaztiak batez be makina bat indarkeri bizi behar izaten doguz jai eremuan: popia ikutu; tabernako komunian geugaz sartu; atetara arte segidu; 50 dei egin; bideoz graba; geure argazkiak zabaldu, mensaje bidez akosa; dantzan gagozela begirada lizunak bota; horman kontra ipini; traguak gonbidatu mozkortzeko asmoz; "potobero" eta bestelako burlak egin; parkian edo hondardan zirriak egiten gagozela nahi ez dogun toki, modu edo intentsitatera ailarazi...eta zemat bidar geuk be tabernatik alde egin beharra sentidu dogun edo etxera eskapo egin dogun "baboso" bat ez aguantatiarren. Zorionez, azkan urtietan autodefentsa feminista bidez, eurak dira jai girua iztera derrigortuta ikusten diraz-enak, segi daigun bide horretan.

Asko diraz eraso matxista motak, eta asko diraz hori babesteko moduak: esajeratzen gagozela esan, asma egin dogula, nahasteta gabizela, mutilen asma ez zala hori, geuk be nahi gendula. Edo umore matxistadun txistiarri barre egin, gusto bako broma matxistari txalo egin, gangarra ataraten daben mutilak hauspotu... Biolentzia normalizateko keinurak dira danak. Nahita eta nahibako konplize lanak.

Askotan gogorrago egiten da bigarren eraso hori: lagun, kide, familiarteko edo herritarren isiltasuna; ekintza eza edo beste aldera begiratze hori. Danok ezagutzen doguz emakume erasotuak, baina inork ez dau ezagutzen gizon erasotailerik. Zelan izan leike hori, ba?

Hori dala eta, txosnaguniak eraso matxistak kudeatzeko lanetan dauon eskarmentuari tiraka, joan dan urtian Mugimendu Feministaren ekimenez udalagaz elkarlanian aritu ginian, eta

emaitza eraso matxisten kontrako protokolua herri guztira zabaltzia izan da. Horregaitxi, aurtan be **turismo buleguan** erasuak artatu eta salatzeke gunia zabalduko da Gaubegi el-karte profesionalaren eskutik: **irailaren 1, 3 eta 4an gabe-ko 22:00etatik goizaldeko 6:00etara. Eta Antzar egunian goizeko 12:00etatik goizaldeko 6:00rak arte.** Gainerako egunetan txosnagunia izango da erreferentzia nagusia, baina baita eguneko 24 orduetan martxan egongo dan telefono zerbitzua.

Ezin esan barik itxi, jai eredu feministagoak eta jai programa inklusiboagoak eraikitzeke bidia agortu ezinezkoa dala, eta, horretan be, lanian jarraitzeke eskuak bihar dizela. Horregaz batera, borroka feministaren beharra aldarrikatu nahi dogu. Batez be, mugimendu feminista eta bere ekarpenak kriminalizatuak izan dizen urte honetan, tartian erasoen kontrako protokoloak eurak. Funtsezko, eta tamalez, premiazko ekarpena egiten dogu. Beraz, hamen segiko dogu, etenik barik, heteropatriarkatu kapitalista arrazistaren kontra jo eta ke lanian. Gure ustez, jai girua aldarrikapen hori zabaltzeko lekua be bada, lelo, abesti edo ikurren bidez. Horregaz batera, emakumeak eta genero disidentekak eta heteronormatik kanpo bizi garen gorputzak jaien erdigunera eroan eta dagokigun tokia hartzera gonbidatu nahi doguz.

**Aldarrikapenak,
abuztuaren 31n,
gabeko 9:00etan
Tortola kaletik hasita
gingo dogun manifikrekin
hasiko doguz.**

*Sanantolink geuriak dira!
Kalia eta gaba geuriak dira! ○*

684 80 20 53

**8 JAI EGUNETAN
24 ORDUTZ**



Ondo pasa

LEKEITOKO JAIAK



ondo pasa jaietan!



Ku ka dak

Paskual
Abaroa
17 behea
94'603 95 31

JOSE ODRIOZOLA

KALIDADE
GORENEKO
PRODUKTU
AUKERA ZABALA



94-684 20 43
Santa katalina, 4 - LEKEITIO



PAUSOKA OINETAKOAK

Gamarra Plaza, 1
48280 LEKEITIO

94-600 96 41
pausoka.lekeitio@gmail.com
@pausoka.lekeitio



OCITEGIA PLAZA



Ondo pasa jaiak!

ATXABAL, 4 LEKEITIO
94 684 02 07



irailak 5, larunbata

Antzar eguna

•10:00.

Txirrist txarangaren KALEJIRA.

•11:00. 

BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK
kalerik kale.

•11:45.

Itxaropena
TXISTULARIEN
eta ANTZAR
BATZORDEAREN
KALEJIRA
Kioskoraino.

•12:00-15:00.

UMEEN PARKEA
Juan Bautista Eguzkitza
enparantzan eta
plaza gorrian.

•12:00.

ZOKETA PLAZAN,
antzarren jaian parte hartuko
duten txalupei zenbakia
emateko.



•13:00.

TXISTULARIEN
BATZEA
Eskolapean,
Itxaropena txistularien
gidaritzapean.
Txistua jo nahi daben guztia
etortzera gonbidatzen da.

•16:00-20:00.

UMEEN PARKEA
Juan Bautista
Eguzkitza
enparantzan
eta plaza gorrian.

•16:00.

ANTZARREN JAIA
portuan.

•Gero.

MASTA-PUNTAKOA.

•17:15.

VIII. CaixaBank
Esku Pilota Mastersa
ESKU PELOTA
TORNEOA
Santi Brouard
frontoian.

•19:00.

KONTZERTUA plazan.
Txapelpunk taldearen
40. urteurrena ospatuz.

•20:30.

ERROMERIA plazan.
Oxabi.

•00:00.

DJ SAIOA plazan.
DJ Jaikide.



•12:00-06:00.
ARRETA
FEMINISTARAKO
GUNEA.
ERASO SEXISTEN
ARRETA GUNEA
Turismo bulegoan.



Eraikuntzak
Kortabitarte, s.l.

Santa Katalina, 1A
Tel. **94 684 08 52**
Faxa: 94 684 26 78

**MOTA
GUZTIETAKO
ERAIKUNTZAK**



LAIKOR
ALTZARIAK
ARROZTEGIA

- Sukaldeko altzariak eta elektrogailuak
- PVC, aluminio eta egurrezko leihoak
- Sarrera eta barruko atek



94-684 2881
609 48 29 58
laikor43@gmail.com
P. Abaroa • LEKEITIO

LEIHOPE
taberna



661 89 50 90
Abaroa Etorb., 24 - LEKEITIO

mantxua
taberna jatetxea • bar restaurante
L E K E I T I O

Eguneko menua
Menu berezia
Razioak / Kazuelak
Dastatu gure tabernako
Rock&Rolla



Beaskolea, 24 • LEKEITIO • 94 465 3349



Mendieta ontzian ateratako talde argazkia.



Merkatu plazan lanean.

MEMORIAN NABIGATZEN

Pasajerua ontzia errealtate izateko bidean da herritar talde zabal baten lanari esker eta herriko itsas memoria berreskuratzeko proiektuaren baitan.

Merkatu plazaren goiko solairua bihurtu da bihar-etzikontziaren behin-behineko lantegi eta proiektuagaz bat egin dutenen bildu leku. Talde lanean, ontzi tradizionala ari dira eraikitzen, merkataritza-ontzi bateko salbamendu-ontziaren jatorrizko planoetan oinarrituta. Jakituriak eta partekatzeak eta ikasteko gogoak egiten dute gainerakoa.

Pasajerua berezia da, Antzar Egunean erabiltzen den

salbamendu-ontzi mota bat delako. Egitasmoa Bilboko Itsasumuseumek bultzatu du, Eusko Jaurlaritzaren eta Lekeitioko Udaren elkarlanagaz, eta proiektu zabalago baten parte da: Pasajerua'26.

Itsasoaren zipriztinak

Egitasmoak Lekeitioko itsas memoria berreskuratu nahi du, eta antolatzaileek hori ulertzeko gakoak eman dituzte. "Itsasondarea ez da soilik objektuen edo eraikinen bidez mantentzen. Pertsonen memoria ere bizi da, hitzetan, lanbideetan, partekatutako istorioetan eta etxetan gordetako argazkietan". Horiek jaso eta zaintzea ere badute xede proiektuagaz.

Horrenbestez, era asko daude Pasajerua'26-en parte hartzeak, ez bakarrik ontzia eraikita. Elkarriketarako egin, testuak idatzi edo argazkiak partekatuta ere egin daiteke bat haregaz, eta hainbat gairi buruz aritu, besteak beste, ontziolari eta itsas bizimoduari buruzko oroitzapenekin zein biziaren lotuta.

Tripulatzailerak ugari batu dira txalupara, tartean Lea Itsas Ondarea proiektu kulturekoak (LIO). Elkarteko kide Irantzu Urrestrentzat "pauso naturala" izan da bertako kideak egitasmoa batzea, Lea ibaiaren inguruko eta Lekeitioko itsas ondarea babestu, berreskuratu eta zabaltzeko ardura dutelako. Baina nahi duten guztiei dago zabalik. "Jendea parte hartzea gonbidatzen dugu. Denontzat dago tokia. Auzolanean egiten da, eta hori aberastasuna da, proiektuarentzat ezezik, baita norberarentzat ere", esan du.

Emaitza deigarriena, Pasajerua, hurrengo sanantolinetarako itsasoratuko da. ●



|| **INDUSKETAK**
|| **ETXEGINTZA**
|| **BERRIKUNTZAK**

EGIGUREN ERAIKUNTZAK S.L.

Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94 684 00 10

PIZZAK • RAZIOAK •
OLAGARRO RAZIOAK •
ENTSALADAK •
OGITARTEKOAK •

LAPERRI

TXIRINGITOA
KARRASPION

lekeitiarra
funeraria • beilatokia

Gautaeguneko
zerbitzua



94 684 1628
Sabino Arana 10 behea • 48280 LEKEITIO



www.inmobiliarialopez.net

Pili López Arritola

Apaltoa kalea, 22
94 624 37 77
689 582 582
pili@inmobiliarialopez.net
48280 LEKEITIO

GUZURMENDI
taberna

Arranegi Kalea, 2
Lekeitio ☎94 624 37 25

*Ondo
pasa
jaietan!*

• ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.

IBETARRI



687 795 736 • ibetarri@ibetarri.eus
• Eleizkale 5, 48380 AULESTI (BIZKAIA)

• BASERRIEN "BARRIZTEA" • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK

Egitaraua →



LEKEITIO
genere
nortasunetik

irailak 6, igandea *Umeen eguna*

•11:00etatik 14:00etara.

TIROLINA, ROKODROMOA
eta KART-AK plazan.

•12:00.

UMEENTZAKO
MASTA-PUNTAKOA
Abdeen moilan.
Izen ematea 11:00etan.

•16:30.

Lekeitioko 35. Zapaterito
ESKU-PILOTA
TXAPELKETAKO FINALAK,
Zapateritoko frontoian.



•18:00.

ANTZERKIA plazan.
Potx eta Lotx pailazoen
Lagunekin topa ikuskizuna.

•18:00.

IPUIN IKUSKIZUNA parkean.
Mireia Delgadoren *Ettxeoak*.
Haur eta helduentzako.
Ant.: Parkeko Gunia.

•20:00.

ANTZARJAIKO ETA
NAGUSIEN
MASTA-PUNTAKOAREN
SARIBANAKETA
limoneroan.



Uronza
Urdaki-Baonza

94-684 37 69 | 656 78 03 41

eskola eta
bulegoetarako materiala

URBIETA
PAPERTEGIA

Gora san antolin!

Artolaba, 4 behea
94 624 38 32
LEKEITIO

**ONDO
PASA
BAINA
EZ PASA**



Lekeitioko Herri Eskolak

Haurreskola / Eskola / Institutua



LeKiPo


**Igeltzaritza
Teilatuak
Gremio koordinaketa**

Tel.: 668 594 978

lekipo95@gmail.com

Letraukua, 1 - 48280 LEKEITIO


Ondo-ondo pasa Sanantolinak!



662 26 30 24

Santa Katalina 1 behe, LEKEITIO

PINGUPE LEKEITIO TABERNA



Paskual Abaroa etorb. 12

LEKEITIO

94 684 2984

www.hostelpingupelekeitio.com

↓ Inkesta

>>> ZER ESANGO ZENUKE JAI HASIERAN PREGOIA BOTATZEKO AUKERA IZANGO BAZENU?



Aitor Ruiz Urizar

«Jaiak denontzat direla esango nuke. Falta direnak akorduan izan, eta denok gozatu behar ditugula, etxekook zein kanpotik datozenek, errespetuz, eraso matxistarik barik, garbi jokatura eta ingurua zainduta. Ikara ematen du pentsatzeak Antzar Eguna zapatuan izanik herria zelan geratuko den!».



Doli Kortazar Badiola

«Kaleak garbi mantentzea eskatuko nuke, garbi jokatzea. Urte guztirako mezua da, ze kaleak lohiak daude. Jendeari kontzientziaztea eskatuko nioke, eta ez zikintzea».



Juan Pedro Aranaz Gabiola

«Gora San Antolin! Ondo pasa, baina pasa barik! Errespetuz jokatu behar dugu. Hoba ez! Eta ondo ibili, beti ere kalterik egin barik. Urte guztirako balio duen mezua da».



Kontxi Altzibar Agirre

«Momentu honetan daukagun bakea gauza ederra da, eta oraintxe gauden modura jarraitzea eskatuko nuke urte guztian, jaiak barne. Ea lortzen dugun hori, ez dagoelako bakarrik herrikoon eskutan. Kanpoaren eragina hor dago, eta ez da eragin makala».




Garazi Navarro Ugarteburu

«Alde batetik, erasorik bako sanantolinak nahi ditugula esango nuke, eta beste alde batetik, ez uzteko alde batera munduan dagoen egoera. Palestinaren aldeko mezua botako nuke, eta inperialismoaren kontrakoa. EEUU eta OTANen kontra berba egingo nuke, eta munduko herri zapalduen alde. Jaietan ondo pasatzeko, baina aldi berean ahaztu barik hori dena».



Kepa Kortaberria Castro

«Urte guztian jagon behar dela Lekeitio, eta ez bakarrrik udara begira. Herri txikia da, lekeitiarrok egiten dugu. Gutxi gara, baina demostratzen dugu gai garelako antolatzeke. Eta bigarren gauza nagusia euskaraz bizi behar garela. Hainbat eta hainbat herritar oso arduratuta gaude. Jendea kalean erderaz berbetan entzuten dugu, eta denon ardura da horren gainean zer edo zer egitea».



Ondo pasa jaiak!



LEKEITIO
geure
nortasunetik



irailak 7, astelehena *Kuadrilen eguna*



• **19:00.**
BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK
kalerik kale.

• **17:00.**
TIRAGOMA
TAILERRA ETA PRAKTIKATZEA parkean.
Adin guztientzako ekintza da eta
ez da eman behar izenik.
Ant.: Parkeko Gunia.

• **17:30.**
ESKALADA TAILERRA parkean.
Adin guztientzako ekintza da eta
ez da eman behar izenik.
Ant.: P.G.

• **20:00.**
KANTUJIRA
Imerso jantzita.
Isidro Salinas enparantzan hasiko da
(Ikusgarri zinemaren aurrean).
Ant.: Zaletxuak Elkarte.



* Jai batzordea:
Jantzi «Imerso» mozorroarekin.
2026ko bajada egunean irabazle suertatzen den mozorroa,
2027an kuadrila eguneko gai aukeratua izango da.



LUMENTZA GASTRO BAR

94-684 15 01

www.lumentza.site

B. Zapiain, 3 LEKEITIO

ITURGINTZA | GALDARAK | GASA | ENERGIA BERRIZTAGARRIAK



Maguregi

iturgintza

DENDA BERRIA: Buenabentura Zapiain, 3 behea

TAILERRA: Aldamiz Etxebarria, 1 behea • LEKEITIO

656 70 83 92 • 94-684 00 22 • maguregi_iturgintza@yahoo.es



ITURGINTZA | GAS PROIEKTUAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK |
ESKABAZIO LANAK



Abaroa etorbidea, 39
Tel. / Faxe: 94 684 30 22
635 749 479 Olaia. M.M
48280 LEKEITIO (Bizkaia)



tia-fran

94 624 32 06
Uribarren kalea 6

ALEJANDRA GOIKOETXEA VAZQUEZ

© UEMAKo teknikaria



Esnatu beharra daukagu euskarak bizirautea nahi badugu

UEMAK euskararen egoera kritikoaren aurrean erreakzionatzera deitu du Esnatu dinamika-
ren bidez. Alejandra Goikoetxea teknikaria horren premiari buruz aritu da.

Zelako erantzuna izaten ari da?

Eskualdean ikusi da horren inguruko kezka badagoela, eta horri erantzuteko konpromisoak hartzen ari dira hainbat udal eta eragile, tartean Lekeition.

Euskararen egoeraren azterketak erakutsi du euskararen erabilera behera doala, eta egoera iraultzen ez bada, arnaguneek laster galduko dutela izaera hori, tartean Lekeitiok.

Ikusi da ezer ez badugu egiten hemendik hamar urtera euskarak atzera egingo duela nabarmen. Hortik abiatuta, UEMAK eta udalek Esnatu dinamika abian jarri dute. Benetan behar dugulako esnatzea egoera hau aldatu eta gure hizkuntzak, euskarak, bizi-rik irautea nahi badugu.

Zein da herriko egoera?

Ardura aurretik dator, eta horri erantzunez Udalaren Euskara Batzordeak *Lekeitiok euskara behar du* kanpaina jarri zuen martxan. Datu bat eman zuten: 45 urtetik gorako ia erdiak espainolez dabilta kalean. Kontzientzia eragin nahi zuten, Esnatuk modura. Kontzientzietan eragiteko kanpaina da. Izan ere, Lekeitio herri euskalduna da, asko modu naturalean gara euskaldunak, baina kontzientzia falta zaigu. Eta kontzientzia falta zaigunean erdarara aldatzeko erraztasuna daukagu.

Uda momentu kritikoa izaten al da?

Lekeitioko kaleetan udan gaztelania asko entzuten da. Horren aurrean oso garrantzitsua da herritarrok ahal duntzea eta kontzientziaztea, geure herrian, geure hizkuntzan bizitzen jarraitu ahal izateko urte guztian, zer esanik ez udan. Datozenek jakin dezaten hemengo hizkuntza zein den, eta geure artean ere euskaraz egin, ze gaztelaniaz dabilta asko euskaradunak dira.

Eta sanantolinetan ere aldarria hortxe...

Gune batzuek hori bermatzen dute, parkeko guneak, kasu. Erreferentziala da, ze euskaraz funtzionatzeaz gain haren aldeko mezua zabaltzen du eta kontzientzia eragitea bilatu. •



LEKEITIOKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEAK LANKETA BEREZIA EGITEN DU SANANTOLINEI BEGIRA.

- Kultur eta kirol eskaintza guztia euskaraz izan behar da.
- Tabernariei euskarazko abes-
tien zerrenda banatzen zaie.
- Pegatinak kaleratuko dira *Lekeitiok euskara behar du* lelopean txosna, taberna eta udal eraikinetan ipintzeko.
- Antzar Egunera begira, banderolak banatuko dira *Lekeitiok euskara behar du* leloagaz.
- Potinetan euskararen aldeko aldarrikapenak egitea proposatuko da.



699 852 246

ula.etxebe@gmail.com

INSTALAZIOAK OROKORREAN /
MANTENIMENDU LANAK /
ATEZAIN AUTOMATIKOAK /

48289 Lekeitio - BIZKAIA

Igeltzu eta sabaien apainketa · Pladurrezko tabikeak



Paskual Abaroa etorbidea, 40 behea | 94-465 00 58 | 685 79 36 96 | LEKEITIO

JAN DA LO



OILASKO ERREAK
AURREZ PRESTATUTAKO JANARIA
ARDOAK ETA TXAKOLINA
HESTEBETEA
KROKETAK
PATATA-TORTILLA
HARAGIA TENPERATURA BAXUAN
GOZOGINTZA

ORDUTEGIA

astelehenetik domekara 10:00 - 15:00.
ETXERA BANAKETA.

(Udan hondartzara banaketa: 12:30-14:30).

Atea, 6 behea. LEKEITIO

 **649 56 05 51**



Txatxo kaia, 13



irailak 8, asteartea *Antiguako Amaren Eguna Koittadu Eguna*

• 09:00.

Itxaropena
TXISTULARIEN KALEJIRA.

• 11:30.

MEZA,
umeen eta aittitta-amumen omenez.

• 14:30.

LEKEITIOKO NAGUSIEN
BAZKARIA. Jubilatuen jatetxean.

• 17:00.

MARMO TAILERRA
Marmo erropak egin eta mozorrotzea.
Adin guztientzako ekintza da eta
ez da eman behar izenik.
Ant.: Parkeko Gunia.

• 18:30.

TXOKOLATADA
parkean.
Ant.: P.G.



• 19:30.

IKARA MUSIKATUAK parkean.
Adin guztientzako ekintza da eta
ez da eman behar izenik.
Sierperen eskutik.
Ant.: P.G.

• 21:30.

SUZKO
ZEZENA.

• Ondoren.

ANTEROREN
EZKUTATZEA,
2026ko jaiei
agurra emateko.

KOITTADUA,
Aittitta Makurra
txarangak
animatuta.

KALEJIRA,
Aittitta Makurra
txarangak
animatuta.



TXATXO
PLAZAKO
TXIRINGITUA



Hondartza ondoko gerape giraua

ZUMARAN
arrain eta
itsaski freskuak



Abaroa, 9 behea | Antiaguako ama, 1
94 684 04 29 | 94 684 27 68

L E K E I T I O

Liburuxka honetan ikus ditzakezun
akatsak edo iradokizunak
jakinarazi **HITZA**ri mesedez.

TXAKARTEGI M A R G O A K



Buenaventura
Zapirain 3, behea

LEKEITIO
94-656 08 26



IGELTSEROTZA
ELEKTRIZITATEA
ETXE-ISOLAMENDUAK

UGARTEBURU, C.B.

Zumatzeta kalea 2 - 1. D · 48280 LEKEITIO
605 717 274 • 609 926 209

1958tik

ZARAUTZ

A L T Z A R I A K



- Era guztietako altzariak
- Sofak eta osagarriak, tradizionalak zein azken tendentzietakoak
- Diseinu eta aurrekontuak konpromisorik gabe

94 684 06 53
94 625 85 78
LEKEITIO • GERNIKA

11barri
DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ

IDEIAK
SORMENEZ
ONTZEN
DITUGU

DISEINU GRAFIKOA |
KOMUNIKAZIOA |
TESTUGINTZA |

11BARRI.EUS

DENA BERE TOKIAN EGON DADIN

Jende asko dago jaien antolakuntzan, tartean, brigadako beharginak. Aurretik hasten da haien lana, eta amaitu ostean luzatzen, baina hartzen dute tarteja iaiez gozatzeko ere.

Brigadakoak eta garbitasunekoak batuta, hamairu lagun aritzen dira urte guztian kaleak atondu eta azpiegiturak prest egon daitezen, zer esanik ez sanantolinetan. Herriko jaiak heltzean, guztia ematen arituko dira beste behin, tartean Imanol Barainka Arriaga, Eba Artola

Egilegor eta Julen Fernandez Zabala, azken biak hamar urtetik gorako ibilbideagaz. Garbitasunak ere euren ardurapean zeuden garaia dakar gogora Fernandezek —orain bost urtetik beste enpresa baten lana da—. "Plaza gaupaseroz beteta, jakin egin behar egoerara moldatu eta euren txistekak jarraitzen!", esan du.

Arinduak arindu, lanik ez dute falta izaten. Ekintzetako azpiegiturak muntatu eta desmuntatzeaz arduratu behar dira, adibidez, Antzar Eguneakoak, egunik eta zaile-

na, besteak beste, Abadien moilan pilatzen den jendea-gatik. Edo aurreikusi gabeko egoerei konponbidea emateaz, plaza azpiko komunak apurtu zirenean modura. "Eta, jakina, kexak entzuteaz, ze horrelakorik badago, aurpegia geu gara", dio Fernandezek. Nolanahi ere, esan du jendea ondo portatzen dela eurekin.

Herritarrei mezua

Batzen den zikinkeria aipatu du Artolak, baita eurengan daukan eragina ere. "Askotan baten bat joan behar izaten da kristalak kentzen kaleak garbitzeko makinak pasa aurretik, gurpilik ez zulatzeko; brigadakoon beldurrik handienetakoa", gogorarazi du. Horregaz lotuta dator mezu bikoitza. Batetik, Fernandezena: "Mesedez, erabili edalontzi berrerabilgarriak". Eta bestetik, Artolarena: "Erabili edukiontziak".

Barainkak gogorarazi du hurrengo egunean herria garbi egon behar dela goizez iaiez gozatu nahi dutenentzat, tartean eurak, gehiago edo gutxiago jaietako ekimenetan parte hartuko dute eta. Izan ere, egun hauetako lana desberdin ikusten dute. "Norbere jaiak izanda, beste era batera egiten da beharra. Eramangarriagoa da", esan du Barainka. ●



Eba Artola, Julen Fernandez eta Imanol Barainka.



Lekeitioko Natura Ikastola



📍 Atea, z/g • Lekeitio
☎ Tel. 94 684 09 59

✉ lekeitio@ikastola.eus
🌐 www.lekeitiokoikastola.eus

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!



**OIER
CANDALES**
HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Odontopediatria (PADI)
 - Inplantologia
 - Ortodontzia
- Aho medikuntza eta kirurgia
 - Hortz-protesia
 - Asegurua (IMQ)



IMQ

Paskual Abaroa Etor., 26 bis beheka LEKEITIO • 94-684 27 02 • 688 826 831 📞 • ochorhtzklmka@hotmail.com

 **REKANBAT**
kirol klinika

Aldamiz Etxebarria, 16 LEKEITIO • **664 07 22 54**
orekanbat@gmail.com

@orekanbat 

BESTELAKO JAI EREDU BAT

Ohi baino ekimen gutxiago antolatuko dira aurren parkeko gunean, "arnasa hartzeko". Nolanahi ere, bistan da hauspoa bada-goela.

Antzar Eguna kenduta, gainerakoetan egunero zabalduko dute txokoa. "Argi daukagu proiektuak balio handia daukala, bai beste jai eredu bat eraikitzen duelako, bai balore askatzaileak transmititzen dituelako, baina bizirik mantendu dadin, jende gehiagoren laguntza beharko dugu", adierazi dute.

Horrez gain, jai guztietan modura, deialdia egin dute txandak bete daitezzen. Bide gehiago ere badaude laguntzeko, ostera. "Materialak zein programazioak kostuak eragingo dituzenez, batetik, jatekoa ekarrita lagundu ahal da, hau da, tortillak eta bizkotxoak, eta bestetik, diru laguntza bonoak eskuratuta, 10 eurotan", diote.

Espazio gozoa

Ume eta gaztetxoentzako ekimen falta nabarituta sortu zen proiektua, orain urte asko: lagun arteko espazio

gozoa, kontsumimotik aparte, eta euskara oinarri duela —"Dena antolatzen dugu euskaraz"—.

Esfortzu handia

Parkeko gunearen atzean esfortzu handia dago, eta helburuak argi, aurrez ez diote uko egingo lanari. "Abiadura moteldu arren, hor egongo gara. Egitarau duinarekin, gainera". Aurtengo sanantolinetan ere ez dira klasikoak faltako, esate baterako, Farolapekuak zigiluagaz antolatzen dituzten emanaldi kulturalak (herriko taldeei eta emakumeei keinu berezia egiten dien bazterra), biodantza, ipuin kontalariak eta tailerrak. Hain zuzen ere, tailerren multzoan berritasun batez datoz: estrepuak zelan egin, *Lekittarrako* patroi Iñaki Goikoetxea *Sagua*-gaz.

"Antzar egunaren bezperan emango du. Izan ere,



Farolapekuak zigilupeko emanaldi bat.




Marmoen kalejira.

antzarretara joateko estropua egin behar izaten da, eta gazte askok ez dute jakiten zelan", azaldu dute.

Momentuari adi dauke parkekoak. "Parkeko gunea gune alternatibo bat da faxismoaren gorakadari aurre egiteko, eta bisitariari hainbat ikurren bidez argi utzi nahi izaten diogu nora datorren". ●

Prim erretegia



Txatxo kaia - LEKEITIO

94 675 4832 / asadorprimlekeitio@gmail.com



RAKEL BILBAO

ZENTRO MEDIKU ESTETIKOA

www.rakelbilbao.com



94-656 25 15 • 679 102 394

Santa Katalina, 2 - LEKEITIO
info@rakelbilbao.com



Torrealday

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE
AHOLKULARITZA
www.torrealday.es/eu

GERNIKA • 94 627 00 36
LEKEITIO • 94 684 26 75
ONDARROA • 94 683 29 75



Gazpatxo, salmorejo, montaditoak
Pintxoak eta razioak

Ondo
pasa
jaixak!

Triana

Apaltoa 22
LEKEITIO

658 74 64 98



JIAIAK DANONTZAKO!

ERASO MATXISTARIK GABEKO JIAIAK!



BETI EDUKI KONTUAN!

Norbait erasotua izan bada, **bere segurtasunak eta nahiek** lehenetsuna dute. Saiatu **espazio seguru** batera joaten eta lagundu ahalko duten zerbitzuren batera jotzen: **Arreta Feministarako Gunea** (Turismo Bulegoa, Santa Elena etorb. 2), Txosnagunea, tabernaren batera edo deitu **Arreta Feministarako telefono-zenbakira (684 80 20 53)**.

Entzun arretaz eta laguntza eskaini! Adierazi zein zerbitzu dituen eskura eta utzi berari erabakiak hartzen. Norbaitek laguntzen duela ziurtatu, eta bakarrik uzteko eskatu ezean, ez utzi bakarrik.

ERASO BAT IKUSI BADUZU

1. Gerturatu ▶ 2. Laguntza eskaini ▶ 3. Arretaz entzun ▶ 4. Erabakiak errespetatu eta ez jarri zalantzan

ERASOA JASAN BADUZU

Laguntza behar baduzu, inguruan eskatu, deitu arreta zerbitzuetara edota lagundu ahal zaituzten zerbitzuetara jo.

ARRETARAKO TELEFONOA ETA ZERBITZUAK:

♀ Arreta Feminista	☎ 684 80 20 53	24
☎ SATEVI (biktimen arreta)	☎ 900 840 111	24
⚠ Bizkaiako krisi zentroa	☎ 900 84 09 77	
🚑 Anbulategia	☎ 94 603 58 60	
🏠 Udaleko Gizarte Zerbitzuak	☎ 946 03 41 00 (9:00-14:00)	
🏠 Udaltzaingoa	☎ 94 684 20 00	

ARRETA FEMINISTARAKO GUNEAK:

IRAILAK 1, 3 ETA 4

22:00-06:00

IRAILAK 5

12:00-06:00

TURISMO BULEGOAN
(SANTA ELENA ETORB 2)

